

Lan istripuak: egoera aldatzeko ordua

Aurten 107 langile hil dira jadanik lan istripuz Euskal Herrian. Hiru egunik behin langile baten heriotza. Eta horrela urteetan. Dramatikoa.

Estatistikek argi uzten dute prekaritateak, azpi-kontratazioek eta lan erritmoek zerikusi zuzena dutela lan istripu eta heriotzekin. Alde batetik, enpresariak eta euren irabazi gose aseezina dira errudun nagusiak: langilea kostu gisa ikusten dute eta lan arriskuen presentzia gain-kostu moduan. Helburu bakarra dute, ahalik eta diru gehien irabazi, eta berdin zaie langileen osasunaren eta biziaren kontura bada ere. Bestetik, Administrazioak sistema neoliberalaren eta enpresarien morroi hutsak dira eta, bere aurpegia garbitzeko kanpaina mediatikoetatik at, ez dute egoera eskandalagarri hau errotik aldatzeko neurri eraginkorrik inoiz hartu, ezta hartuko ere. Hauek ere, erantzule zuzenak dira.

Errealitatea gordina izanik, gogorra egiten bazait ere, aipamen gordin bat egitera ausartuko naiz: bai, enpresari eta Administrazioak dira erantzule nagusiak, baina, zer gertatzen da Madrilen langileen aurkako erreformak etengabe sinatu dituzten sindikatu horiekin?



DANI BLANCO

eskubideak hankaz gora jarri dituzten politikak eta erreformak adostu eta euskal langileoi inposatzerako orduan. Hortik datoz, neurri handi baten, egungo lan baldintzak eta langileon eskubideen murrizketa eta babesik eza.

Horrexegatik, ez dadila etorri orain inor langileriaren batasunaren eta pankarta bate-ratuen izenean lezioak ematen. Are gutxiago, lan istripuen aurkako planteamendu testimonial eta abstraktuekin. Lan istripuen aurkako borroka, prekarietatearen, azpi-kontratazioen eta lan baldintza txarren aurkako borroka da. Lan harremanetarako eta babes sozialerako euskal esparrua eraikitzeko behar dugun aldaketa politiko eta sozialaren aldeko borroka da.

Bai, heriotza bakoitzaren aurrean lantegian bertan erantzun behar dugu lankideok, baina, horrez gain, arazoa jendarte osoarena da eta erantzuna ere auzoetara, herrietara, kalera eram behar dugu, herritar guztien partehartzea ahalbideratuz. Prekarietatearen eta lan istripuen aurkako erantzun eraginkorra eraiki beharko da enpresarien eta Administrazioen jarrera aldatu nahi badugu, eta jauzi kualitatibo hori gauzatzen hasteko, berandu baino lehen lanuzte orokor bat prestatzeko ordua da. Bide horretan egingo dugu bat egoera errotik aldatzeko ahaleginak egiteko prest daudenekin. ■

« Enpresari eta Administrazioak dira erantzule nagusiak, baina, zer gertatzen da Madrilen langileen aurkako erreformak etengabe sinatu dituzten sindikatu horiekin? »

TXANDAN

Amatiño



Egonkortasunak ez du prentsa onik. Are gutxiago *l'enfant terrible*arenak egitea honen-

beste gustatzen zaigun Euskadi honetan. Hala ere, nire ilobek gerrarik gabeko hirugarren belaunaldia osatzen duten European, egonkortasuna da segurutik sekula izan diren iraultza historikoetarik handienetakoa.

Hainbatek besterik uste arren, egonkortasuna ez da betiko betikoez diru gehiago egin dezaten, ezta administrazio publikoak merkatuan eraginik ez dezan izan ere. Ez, egonkortasuna ez da kontserbatzailea, demokratikoa, soziala eta ekologikoa baino.

Egonkortasuna

Egonkortasuna demokratikoa da, joko demokratikoaren fruitu delako, herrituna dakarrelako, gizabanakoen eskubideak eta askatasunak segurtatzen dituen bakarra delako.

Egonkortasuna soziala da, egonkortasunik ezak indartsuenaren legea behartsuenen kaltetan ezartzen duelako. Lanpostu-kalitatea, pentsio-segurtasuna, ekonomia-sentodasuna edota gizarte-elkartasuna egonkortasunaren ondorio direlako.

Eta egonkortasuna ekologikoa da, globalizazioaren "gutasunak" ingurumenaren defentsa areagotzen duela-ko; gure erantzukizuna "besteek" edo "gerokoei" leporatzeko tentaldia uxatzen digulako. ■